

Desagertzen ari ote da Euskal Herrian?

Euskal arrantza sektorea egoera larrian dago aspalditik, eta egoera hori are gehiago okertu da orain, arazo hauek direla eta: antxoarantzatzeko debekualdia, lonjako prezioen izoztea eta Indiako Ozeanoan atuna arrantzatzen aritzen diren itsasontziek itsaslapurrekin dituzten arazoak.

DANIEL UDALAITZ

SOMALIAR ITSASLAPURREK Indiako Ozeanoan bi euskal arrantza ontzi bahitu izanak (lehenik *Playa de Bakio* eta orain *Alakrana*) agerian jarri du berriro ere euskal arrantza sektoreak bizi duen egoera larria. Aspalditik sortuz joan den egoera delikatu hori larriagotu egin da azken urteetan, eta gaur egun oso etorkizun zalantzarria du jarduera horrek. Horren adierazle dira datu hauek: duela hamabost urte, Euskal Herria osoan 8.000 arrantzale eta 750 arrantza ontzi zeuden; gaur egun, berriz, 2.900 arrantzale baino gehixeago eta 300 ontzi baino

gutxiago. Zehazki, Hegoaldeko ontzidiak 584 itsasontzi eta 6.546 arrantzale zituen 1992an; azken datu ofizialen arabera, berriz, 2008. urtearen amaieran ontziak 274 ziren, eta arrantzaleak, 2.624. Iparraldean, bestalde, garai onenetan 3.000 arrantzale zeuden; orain, berriz, 300 baino gutxiago.

Sakoneko arazoak

Zein dira egoera hori sorrarazi duten euskal arrantza sektorearen arazo garrantzitsuenak? Arrantzale izateak berekin dakar bizimodu latza izatea: denbora asko kanpoan

igaro beharra, atuna zein bakailoa lortzeko urruneko arrantzaguneetara joan beharra eta, orain Indiako Ozeanoan gertatzen ari den bezala, segurtasunik eza. Baina horrez gain, badira sakoneko beste arazo batzuk ere, egoera hori ulertzen laguntzen dutenak.

Arazo horietako bat da arrainaren lonjako prezioak ia erabat izoztu direla. Sektore horretako hainbat iturritatik ziurtatu dute lonjako prezioak ez direla ia batera aldatu azken hogeitaz urteetan, merkatuetako prezioak izugarri igo diren arren; esate baterako: lonjan legatz kilo 3

Arrantza ontziak Hondarribiako portuan geldirik, petrolioaren igoera salatzen duten protesta batean.

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



Administrazioak ez dio etorkizunik ikusten itsas arrantzari

Oraindik goiz da jakiteko Lopez lehendakari duen Eusko Jaurlaritzak zer jarrera ofizial duen euskal arrantzaren etorkizunaz. Dakiguna da aurreko gobernauk, Ibarretxe buru zuenak, ez ziola etorkizunik ikusten itsas arrantzari. EAJK zuzendutako aurreko gobernauk 2008-2013 aldirako plan estrategiko bat landu zuen, euskal arrantza sektorea suspertzeko. Plan horretan, 170 neurri baino gehiago bildu zituzten, eta haietatik ondoriozta daiteke ez zutela itxaropenik itsas arrantzaren etorkizunean.

Plan horretan aurreikusten da batez ere lehorreko jarduera sustatzea; bereziki, eraldatze industriaren bidez. Bertan azaltzen denez, kostaldeko eremuek arrantzarekiko duten mendekotasuna murriztu beharko litzateke, bertako egitura sozioekonomikoa beste esparru batzuetara egokituz. Ontzigitza erabat gelditzearen alde egiten du, bai eta eraldatze industria garatzearen eta egokitzearen alde ere; batez ere, kontserba industria. Eta akuikultura garatzea proposatzen du, enpresen sorrera sustatuz eta profesionalen eskaintza areagotuz.

euro ordain daiteke, eta merkatuan, berriz, legatz horren prezioa kiloko 15 eurokoa izan daiteke.

Bien bitartean, armadoreak dituen kostuak izugarri hazi dira azken urteetan; batez ere, gasolioaren prezioa igo delako. Egoera horretan, arrantzaleak arraina zuzenean merkaturatzen saiatu dira, bai Iparraldean, bai Hegoaldean; edonola ere, saio horiek ez dira egoerari irtenbidea emateko bezain eraginkorrak izan. Zuzenean merkaturatzea oso zaila eta garestia da.

Beste arazo bat da gora bidean dauden herrialdeak sartu direla merkatuetan, eta arraste teknikak erabiltzen dituztenez, arrantzaguneak ahizten ari dira. Antxoia da, bestalde, baxurako euskal ontzidiaren bizibide eta elikagai nagusia. Baina hura arrantzatzea debekatuta dago duela hiru urte, Europar Batasunak hala erabakita, espezia berreskuratzeko helburuarekin. Oraindik ez dakigu

Arrantzaleak saiatu dira arraina zuzenean merkaturatzen, baina irtenbidea emateko bezain eraginkorra ez da izan

datarren urtean udaberriari hasi ohi den antxoaren arrantzialdia baimenduko ote duten. Batzuen ustez, oraingoz ere debekuak iraun egingo du; agian ez da erabateko debekua ezarriko, baina bai muga batzuk.

Gainera, duela urte batzuetatik hona, arraina beste herrialde batzuetatik inportatzen da, eta horrek ere eragin hondagarria du euskal arrantza sektorearen egungo egoeran. Hain zuzen, Forondako aireportua (Gasteiz) Euskal Herriko porturik handiena dela esan ohi da. Egunero, munduko

leku urrunetako arraina eta itsaskiak ekartzen dituzten hegazkin handiak iristen dira hara. Banaketa enpresa handiek munduko beste leku batzuetako arrain freskoa eta merkea eskaintzen dute egunero, eta horrek ere gure arrantzaleei ordaintzen zaien lonjako prezioa izoztea dakar.

Alturako eta baxurako ontzidiak

Ondoko taulan ontzidiei buruzko datuak ageri badira ere, komeni da kontzeptu horiek argitzea. Alturako ontzidia alturako freskoko arrantzan aritzen da, eta atuna zein bakailaoa ere arrantzatzen du, gehienetan Bizkaiko golkotik oso urrun dauden arrantzaguneetan. Alturako ontzidiak 64 itsasontzi eta 1.140 arrantzale ditu. Itsasontzi horietako 34 alturako freskoko arrantzan aritzen dira, eta 409 arrantzale dituzte; beste 5 bakailao ontziak dira, eta 102 arrantzale dituzte, eta beste 25, atun ontzi izoztaileak, 629 arrantzalerekin.

Azken multzo horretakoak dira, besteak beste, duela gutxi bahituta-ko *Playa de Bakio* eta *Alakrana* ontziak.

Baxurako ontzidia gainerako arrantza motetan aritzen da; baina garrantzitsuenak antxoaren eta hegaluzearen arrantzialdiak dira. Baxurako ontzidiak 210 itsasontzi ditu, eta 1.484 arrantzale; haietatik 94 ontzi eta 887 arrantzale Gipuzkoako portuetakoak dira, eta 113 ontzi eta 576 arrantzale, Bizkaiko portuetakoak. Beste 3 ontzi eta 21 arrantzale EAeko ontzidiaren mende daude, baina kanpoko beste portu batzuetan. ■

HEGO EUSKAL HERRIKO ITSAS ARRANTZA FLOTA*

	Urtea	Ontziak	Zaldi potentzia	ETG**	Arrantzaleak
Altura	2006	70	140.380	49.697	1.247
	2007	65	135.245	48.217	1.189
	2008	64	138.028	49.542	1.140
Baxura	2006	230	71.159	14.232	1.655
	2007	226	69.625	14.016	1.623
	2008	210	64.005	12.963	1.484
Guztira	2006	300	211.539	63.929	2.902
	2007	291	204.870	62.233	2.812
	2008	274	202.033	62.415	2.624

* Ipar Euskal Herriko flota oso mugatua da, 30 itsasontzi eta 300 arrantzale baino gutxiago ditu.

** Erregistroko Tonaje Gordina.

Iturria: Estatistika eta Sektore Analisisietarako Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritza.